

ESEN-en POSIZIONAMENDUA

2017/06/09

ESEN Sarea

Topaketa hau amaitutzat eman baino lehen, ESEN osatzen dugun entitateen aldetik askatasun gabezia dauden pertsonen edo eta kartzela esperientzia bizi izan dutenen arreta hobetzeko gure proposamenak eta hauteman ditugun beharrak jakinarazi nahi dizkizuegu.

Kartzela zigorra betetzen duten pertsonak, gehiengo batean, gizarte bazterketa egoeretatik datoz eta gabezi eta behar multzoa - hezkuntza arlokoak, gizarte mailakoak, formakuntzakoak, osasunarekin lotutakoak, ekonomikoak, administratiboak edo eta emozionalak - bizi dute, hauei erantzun ahal izateko bitarteko espezializatuak behar dira eta ardura komunitatearena, erakunde publikoena eta gizarte entitateena da.

Askatasun gabeziak berak pertsonen bazterketa egoerak larriago bihurtzen ditu, beraien ingurunetatik eta gizarte zein familia harremanetatik isolatuaz.

Horregatik guztiagatik, ESEN osatzen dugun entitateek kolektibo zehatzei arreta eskaintzeko proiektu ezberdinak kudeatzen ditugu, hala nola adikzioak dituzten pertsonak, atzerritarrak, gaixotasun mentalak dituztenak, emakumeak eta gutxiengo etnikoak. Programa anitzak garatzen ditugu: gizarte-hezkuntzakoak, giza-lanbidezkoak, formaziokoak, juridikoak, kirol arlokoak eta beste batzuk; birgizarteratzea landuz, prebentzioa sustatuz, delituaren aurkako borroka eta segurtasun eskubidearen defentsan, bide-laguntzan eta gizarte sostenguan.

EAEri espetxe eskumenak ematea eskatzen dugu, gaur egun Eusko Jaurlaritzaren esku dauden gizarte, hezkuntza, enplegu eta osasun eskumenei gehituz eta modu horretan arreta integrala eta bateratua eskaini ahal izateko.

Espetxe zigorraren ordezkotzat alternatibak sustatzearen aldekoak gara; osasunean, hezkuntzan, prebentzioan edo gizarte politikan inbertitu eta askatasun gabeziakoak izan beharko lirakekeen plazak egoki planifikatu. EAEko kriminalitate indizeak kontutan hartuta, Arabako Espetxearekin nahikoa izango litzateke, eta Bizkaian eta Gipuzkoan Gizarteratze-zentro bana eraikitzea defendatzen dugu. Gure ustez garrantzikoa da euskal herritar presoek zigorrak EAEko espetxetan bete ahal izatea, modu horretan EAEko entitateen gizarte integrazio programak eta baliabideak eskura eduki ahal izateko. Sustatu beharra dago kartzela zigorraren alternatibak izatea delituaren aurreko erantzun ohikoena, eta espetxe zigorra salbuespena izatea.

Espetxe eskumenak eskuratu bitartean, lehentasunezkoa da gure ustez Araba, Martutene eta Basauriko espetxeetako Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak Eusko Jaurlaritzaren kudeaketapean egotea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bilakatuta.

Gogorarazi nahi dugu askatasun gabezia bizi diren pertsonen kolektiboak ezaugarri oso zehatzak dituela espetxe barruko bizitzaren ondorioz, kasu batzuetan espetxealdia asko luzatzen delarik. Honek deserrotzea eragiten du (pertsonala, gizarte mailakoa eta “administratiboa”) eta askotan ez dute dokumentazioa eguneratua edo dokumentazioak ez ditu betebeharrak guztiak betetzen. Administrazioak sentzibilitate berezia beharko luke egoera hauekin, eta bermatu beharko luke inork ez jarraitzea askatasun gabezia kartzelaz kanpo harrerarik ez duelako eta Gizarte Zerbitzuetara heltzeko aukeratik kanpo geratu delako. Adibidez, pertsona batek baldintzapeko askatasuna lortzeko baldintza legalak betetzen baditu, baina ez badu erreferentziako etxebizitzarik, kartzela barruan jarraitu beharko du zigor osoa bete arte, eta askotan urte batzuetako aldea suposatuz dezake honek.

Horregatik guztiagatik, ESENEk defendatzen du:

- ❖ Preso dauden pertsonen eskubideak bermatuko dituen harrera espezifikoak bermatzea, norbanakoan oinarritua eta kolektiboa, komunitatera itzultzeko plaza nahikoekin.
- ❖ Programetara eta interbentziara sarbidea ezinezko bihurtzen duten administrazio betekizun zurrunk ez eskatzea.
- ❖ Egoitza-plaza nahikoak sortu eta eskaintzea, familia babesa ez duten pertsonentzat edo programa espezializatuak behar dituztenentzat: hezkuntza mailakoak, psikologikoak, osasun arlokoak edo portaeraren kontrolarekin harremana dutenak.
- ❖ Hiru Foru Aldundien artean eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinazioa jarioz egitea, elkarlanean programak planifikatzeko.
- ❖ Askatasunez gabetutako atzerritarrek beharrezko dokumentazioa eskatu eta eskuratzeko eskubidea izatea, beraien atzerritar izaera administratiboa eskubideen murrizketan eragin ez dezan.